

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

WORLD IN PROGRESS enpresak eskaintzen dituen zerbitzuaren bezeroaren perfila pertsona heldu batena da. Adin honetan geroz eta jende gehiago dago birziklapenaren alde eta horrez gain bertan izaten dute pertsonak beraien maila ekonomiko gorena. Oso garrantzitsua da gure bezeroak ingurumenari buruz kontzientziatuak egotea, hori baita gure ideia nagusienetako bat. Baina baita ere, garrantzitsua da gure bezeroek gure produktuak erosteko dirua edukitzea ere. Esan dugun moduan, helduak izango dira batez ere gure bezeroak, izan ere hauek joaten baitira erosketak egitera. Ondorioz, merkatu masibo baten barruan kokatzen gara. Hala ere, gure enpresa eta gure zerbitzuak hiri gutxi batzuetan ipiniko ditugu oraingoz ez baitugu gehiegi arriskatu nahi **oraingoz**, baina etorkizunera begira gustatuko litzaiguke gure enpresa gehiago zabaltzea.

